



## Irudimenetik zinemara egin du salto Atxagaren Obaba-k

**IKUSMINEZ** ▶ Jakinmin handia piztu zuen, atzo, Donostiako Zinemaldia zabaldu zuen 'Obaba'-k

**POZIK** ▶ Armendarizen filmak «'Obabakoak' liburuaren espiritua» duela dio idazle asteasuarrak ▶ 2,3



Montxo Armendariz (ezkerrean) eta Bernardo Atxaga, atzo, Donostiako Zinemaldian, *Obaba*-ren aurkezpenean. IÑAKI LAZKANO / IRUTXULOKO HITZA

**TOLOSALDEA** ▶

**Euskaraz bizitzeko pausoak emanez**

Euskara ikasteko eskaintza Anoetan, Iruran eta Tolosan ▶ 4

**ARESO** ▶

**Olazabal pilotaria txapeldun Lezon**

22-19 irabazi du Aldatz-ekin, «partida gogor eta luzean» ▶ 6

**ALKIZA** ▶

**Herriaren webgunea martxan** ▶ 6

**NORA BIDALI**

Posta elektronikoz: [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAren egoitzara

Oinarriak [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info) webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitzako Arakindegia jate txean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaticoak.

Argazkien erakusketa egingo du, Tolosako ALDEZAHARRA elkarteak



**bidali zure argazkiak!**

argazki  
**hitza** lehiaketa



KULTURA ▶

# Irudimenetik zinemara

Bernardo Atxaga asteasuarraren 'Obabakoak' liburuan oinarritutako 'Obaba' filma aurkeztu zuen, atzo, Montxo Armendariz zuzendari nafarrak Donostiako Nazioarteko 53. Zinemaldian



Montxo Armendariz eta Bernardo Atxaga, atzo, Donostiako Zinemaldian emandako prentsurrekoan. IÑAKI LAZKANO / IRUTXULOKO HITZA

A.O.- A.G. - BERRIA

Izugarrizko jakinmina zegoen atzo goizean aurtengo Donostiako Zinemaldiari hasiera eman zion Montxo Armendarizen *Obaba* filmarenganako. Bernardo Atxaga asteasuarraren *Obabakoak* liburuan oinarritua, liburua irakurtzen irudikatutako pertsonaiak eta paisaiak aurrez aurre ikusteko ikusmina. Sarrerak aspaldi agortuta, jende andana bildu zen Kursalean. Tartean, euskal kulturako aurpegi ezagun ugari: Laura Mintegi, Harkaitz Cano, Xabier Mendiguren Elizegi, Xabier Montoia, Eider Rodriguez, Jon Maia, Fito Rodriguez...

Ikusmin berbera errepikatuz zen filmaren ostean Montxo Armendarizek, Bernardo Atxagak eta *Obaba* filmean parte hartzen duten Barbara Lennie, Pilar Lopez de Ayala, Juan Diego Botto eta Mercedes Sampietro aktoreek eskaintako prentsurrekoan. Kazetariak jakinmina zuten Atxagaren *Obaba* Armendarizek ongi irudikatu ote zuten.

KRITIKA ▶ GONTZAL AGOTE (KAZETARIA)

## Urrutiegia dago Obaba

**T**opiko batekin hasterarren: bai zaila liburuak pelikula bihurtzea! Aregiagi, bere izenburua *Obabakoak* bada. Izan ere, Atxagak idatzitakoa ez da, behin eta berriz errepikatzen den moduan, eleberri bat, baizik eta idazleak hala-nola harilkatu zuen ipuin bilduma bat. Eta ipuin horiek, oro har, maila oso ona dutenak, dira liburuari benetako balioa ematen diotenak. Antzeko zer edo zer gertatzen da Montxo Armendarizek egin duen pelikularekin, kontatzen dituen hiru istorioek —irakaslearena, Pellot anai-arrebena eta injenieruaren semearena— askoz ere indar handiago dutela, pelikulari batasuna eman beharko liokeen hari hauskorra baino.

Ez da zaila zuzendariaren itzala Lourdes narratzailearen pertsonaian islatuta ikustea, bideo kamera baten bitartez herriaren oraina eta iragana jaso nahi du, baina istorioak pilatu ahala bere ezintasunaz ohar-tuko da, eta horrek ezinegon handia sorraziko dio. Azkenean protagonistak bere ezintasuna onartuko du: *Obabako* herritarren istorioak biltzen segituko du, baina ikusleak ez ditu horiek ezagutzeko aukerarik izanen. Nolabait, ematen Armendarizek «hor konpon» esan nahi duela.

Protagonistaren bizipenen bitartez istorio txiki-handien mundura daraman bidea egitea da *Obaba*-k proposatzen duena, erreala eta irrealahastan diren lekura ailegatu arte. Horrexegatik, mundu ezegun batean murgildu nahi gaituelako, thriller batean moduan hasten da *Obaba*: kamerari hitz egiten dio Barbara Lennie, az-

kenaldian mundua ikusteko modua guztiz aldatu duela aitortuz, iraganean euskarriak zirenak —amorantea, ikasketak, noizbehinkako lanak— orain hutsalak iruditzen baitzaizkio. Gauaren iluntasunak seinatutako du *Obabako* bidea, suspentsearen ohiko osagaiekin lagunduta: tentsioa sortu nahi duen musika, herritararren bat-bateko agerpena, haren begirada mesfidatia eta erantzun misterioitsua...

Baina herrira ailegatzearekin batera Armendarizek hobekien menderatzen duen eremura eramaten du pelikula eta lasaitasuna —hainbatetan moteltasuna— legez-tzat duen bizimodua erakusten du, pixkanaka —lehen ordu erdia luzea egiten da— herritarren izaera eta *Obaba*-k gordetzen dituen istorioak ezagutzen hasiko da ikusleak. Bere aurreko filmetan bezala lortutako herri giroa ona da, nabaria da zuzendariak menderatzen duela narrazioa molde hori, hala ere mortu bezala agertzen zaigu orainaldiko *Obaba*, pertsonaia eta leku gutxi batzuk baino ez baitira agertuko. Horien artean dago pelikula pertsonairik ahulena, Juan Diego Bottorena, ziur aski arrazoi fisikoak maite dituzten ikusleak erakartzeko pentsatuta dagoena.

Askoz aberatsago, biziago, agertzen da pelikula iraganeko *Obabari* begira jartzen denean, hiru istorioak kontatzen dituenen alegia. Narrazioak bestelako freskura hartzen du eta *Obaba* gertuago dagoela ematen du, ikusleak bere misterioak ezagutzeko aukera izanen duela.

Hiruren arteko lehenak, irakaslearenak, detaile txiki batzuk baino ez ditu behar he-

rriarren nortasuna begibistan jartzeko: postariaren joan-etorriak, tabernako zala-parta, emakumeen begirada hilgarriak, ikastetxearen gabeziak... eta Pilar Lopez de Ayalak txukun erakusten digu bakardadearen gogorra. Pena da aurretik irakurlea izan ez den ikusleak ez jakitea irakaslearen nahigabearen jatorria, liburuan hain inportantea den «lagunik lagunena» oso zeharkako aipamenei bitartez, hitzik egiten ez duten eskutitzen bitartez, baino ez da agertzen eta zaratsura itzultzen da pelikula, baina Eduard Fernandezekin edozein tokitan topo egitea plazera da, are gehiago egokitu zaion muturreko pertsonaia antzeztu behar izaten duenean. Bera eta bere istorioarekin amaierara mantenduko den ermittu biziagoa hartuko du filmak.

Pellot anai-arrebekin bat-batean hiri giro bortitz eta zaratsura itzultzen da pelikula, baina Eduard Fernandezekin edozein tokitan topo egitea plazera da, are gehiago egokitu zaion muturreko pertsonaia antzeztu behar izaten duenean. Bera eta bere istorioarekin amaierara mantenduko den ermittu biziagoa hartuko du filmak.

Eta, azkenik, liburuak duen ipunik boro-bilena, *Esteban Werfell*, aurkezten digu pelikulari. Hau askoz ere interesgarriago gertatzen da umearen begietatik ikusita, egun batetik bestera Alemaniara *lan bila* itzultzen den Esteban Werfellen ahotik kontatuta baino.

Gorabeherak gorabehera hiru istorio horiek salbatzen dute, neurri handi batean, filma, asmo onez eta ofizioz egina dagoena baina askotan nahiko hotza gertatzen dena. Mapek kontrakoa esan arren, urruti zegoen *Obaba* eta gaur ere urruti egoten segitzen du.

### Imaginatuz bezalakoa

Jakingura bera —«eta beldu-rra»— izan zuela aitortu zuen zuzendari nafarrak: «Irribarra ahoan irten zela ikusi nuen, arnasa hartu nuen». Hain zuzen, idazlea «oso pozik» gelditu zen behin *Obaba* pantailan ikusi eta gero: «Erabat sartu nintzen filmean. Emozionalki ez dago liburuaren eta filmaren artean desbedinatsunik. Zorioneko sentitzen naiz». Tasio ikusi zuenetik zekien Atxagak bera eta Armendariz «munduko berekoak, familia-koak», zirela. «Irabaztera jotzen nuen apostu honetan».

Hala ere, Atxagak argi du idazleak ez direla sortzen dituzten pertsonaia eta lekuen jabeak. Eta sortzaile bakoitzak bere bidea egin behar duela deritza. «Ezinezkoa da liburu bat literalki film bihurtzea. Sorrenaren eraldia izango litzateke». Literatura eta zinema bi hizkuntza desberdin direlako.

Hain zuzen, *Obabakoak* liburuaren narrazioak josteko harria sortu du Armendarizek: Lourdes pertsonaiaren (Barbara Lennie) bidaia iniziatikoa. *Obabako* misterioak bere bideo kameran harrapatu nahi dituen gazte honek lotzen ditu Atxa-

BERNARDO ATXAGA ▶ IDAZLEA

## «Euskaldunekin lotutakoarentzat leku mental berri bat konkistatu behar da»

Iñaki Lazkano / Irutxuloko Hitza ▶ Montxo Armendarizek egindako filmak *Obabakoak* liburuaren espiritua duela dio. *Obaba* filma hizpide izateaz gain, *Obabakoak* liburuaren erraiak ere biluzi dizkigu.

**Euskal kulturaren auziari buruz ikuspegi berezia duzu. Lekuak izango dira ardatz zure hurrengo liburuan, eta esandakoarekin loturarik bada.**

Lekuak, batez ere, mentalak dira. Ez dago konkreziorik. Zentzu horretan, apurka-apurka, ohartzu joan naiz mentalki zein lekutan kokatzen naute. Asteasun jaioa naiz. Gipuzkoako probintzian. Herrikka bateko irakasle eta arotz baten seme naiz. Elebiduna naiz eta euskaraz hitz egin eta idazten dut. Kanpotik leku mental hori loturik dago baserriarekin, mendiarekin... estereotipo horren ondorioa da. Irudi fantasmagorikoa da. Hondartza ondoan bizi diren euskaldunak badira, aristokratak, abokatuak, medikuak. Baina irudi fantasmagoriko hori proiektatzeko da euskaldun guztiengan. Gainera, euskaldun askok bere egiten dute irudi hori. Tentsio hori, hizkuntzarena, oso present dago. Beraz, euskaldunekin lotutako guztiarentzat leku mental berri baten konkista lortu behar dugu.

**Montxo Armendarizek egindako kontakizunen aukeraketarekin bat zatoz.**

Interpretazioa librea behar du izan, eta niri, behintzat, filma asko gustatu zait. Werfell ingeniariarena da gehien maite dudana istorioa. Irakaslea ere oso fin erretrataturik dago. Pertsonaiak, gainera, kutsu biografikoa du. Ama irakasle izan nuen eta Pirinotako herrikka galdutako batean. Horrez gain, muskerra da lekuaren ikur. Obabaren arrotzasuna muskeraren arrotzasuna baita. Ba-

garen liburutik hartutako hanbait istorio. Eta idazleak berak imaginatu bezalakoak dira istorio horietako protagonistetako asko: Obabako ikastetxea, irakaslea... eta narrazioen aukeraketarekin ere ados etorri da: «Esterban Werfellena liburuko nire gustukoena da».

Horien denen gai komuna, «Armendarizen lanetan ageri ohi dena», arrotzasun sentimendua dela dakusa Atxagak: irakasle bakartiarena, jatorri



IÑAKI LAZKANO / IRUTXULOKO HITZA

kardadea eta maitasun eza bezalako gaiak oso agerikoak diren arren, arrotzasuna da gai nagusia. Pertsonaia guztiak arrotzak dira Obaban. Ingeniari alemaniarra, irakaslea... baita filmeko protagonista. Beste mundu batzuetatik datoz.

**Jende askok filma ez dela liburuaren irakurketa zehatza dio.** Liburuaren irakurketa da zinema. Ezin du inolaz ere literala izan. Itzulpena da, finean. Norwicheko katedralako ispilua bezalakoxea da. Txikia da baina katedralaren xehetasun oro ikusten da. Liburuaren laburpen esanguratsua da filma. Bere espiritua islatzen du.

**Obaba euskaraz pentsatua, eta gaztelaniaz errodaturia dago.** Alderik bada, baina arte guzti-tietan dago. Itzulpenak hor daude. Zentzu horretan, beste itzulpen bat bezalakoa da. Liburuetan beti uzten dut euskararen marka bat itzulezina: kanta bat, izen batzuk... eta Montxo Armendarizek hori bera egin du filmean euskaraz abesten den kantarekin.

**Zein leku zenuen buruan**

almeniarreko Esteban haurrena edo hilik dagoen arreba barruan bizi duen Lukasena, kasu. Sentimendu horiek mundu osoan uler daitezkeenez, «filma ez dugu zertan hemen atzerrian baino hobeto ulertu behar», zioen.

Euskaraz sortutako obrarekin eginko gaztelaniazko filma «liburu baten itzulpena bezala» hartu behar dela azaldu zuen Atxagak. Hala ere, beti, itzuli ezin den hitz bat edo esal-

**‘Obabakoak’ idatzi zenuenean?**

Ez dago leku jakinik. Asteasu, Zizurkil eta Albiztur dira nire bizitzetako erreferentzia nagusiak. Baina berrogei urte pasatu dira. Leku horiek ez dira gaur egun direnak, ordea. Hortaz, mentalki baliokide bat bilatu nuen. Itzaltzuko bardoa zela eta, paraje haietara joana nintzen. Eta hura ez zela gehiegi aldatu kontatu nion Montxori. Hala, Uzartarotzen errodaturia du film gehiena. Basoz inguratuturik egon behar zuen Obaba. Ezinbesteko baldintza zen. Bakartutako lekua behar zuen izan.

**Zure obrak zinemaritzen hasizkoak dira azkenaldian.**

*Zeru horiek* eleberriarekin film bat egingo da telebistarako. Eta oso pozik nago Aitzpea Goenagak zuzendu duelako. Izan ere, oso ondo ezagutzen du nire mundua. *Gizona bere bakardadean* ere sarritan eman nahi izan da zinemara. Enrique Urbizuk eta Hollywood-ek, esaterako. Nahiko nuke Enrique Urbizuk noizbait nire liburu batean oinarritutako pelikularik egingo balu. ◀

di bat uzten duela gaineratu zuen, «euskaraz bakarrik uler daitekeena». Horregatik abesten dute euskaraz Obabako irakasleak eta Manuel ikasleak Birjina maite kantua.

Atxagak bere liburuan oinarrituriko film batekin nahikoa duela esan arren, atzoko prentsaurrekoan David Nivenekin maiteminduta zeuden Nafarroako hiru ahizpen istorioarekin film bat egiteko proposamena luzatu zion Armendarizi.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

# ‘Ipuinartean I’ erakusketaren hasiera, bihar

Aranburu Jauregian izango da; izen bera duen liburua ere aurkeztuko dute

IRATXE ETXEBESTE

Inmigrazioari buruzko egitasmo bat dela esan zuten. Gai hori partaidetzaren bidez lantzeko xedea duela ere bai. Baita bertan 36 artistak parte hartuko dutela ere, eta horietatik hogeitau euskal kulturaren ingurukoak diren bezala, gainerako hamaseiak beste kultura batzuetatik datozela. Irakzi, Tolosaldeko kulturaren inguruko aldeko elkarteak antolatutako IpuinARTEan I proiektuari buruz ari gara.

«Egitasmoa gauzatzeko lehen urrats gisa, bost kontinentetako ipuin, mitologia eta elezaharren bilduma bat osatu zen, eta artistek bilduma horretako testuetan oinarritutako obrak egin zituzten gero. Obra horiekin erakusketa ibiltari bat eratuko da, eta baita liburu-katalogo bat ere», zioten proiektuaren sustatzaileek hil honen hasieran Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean egin zuten prentsaurrekoan.

Bada erakusketa hori osatuta dute antolatzaileek honezkerro, eta bihar bertan egingo dute bere inaugurazio ofiziala, 19:00etan, Aranburu Jauregian —prentsarako eta gonbidatu bereizientzako lehenago, hain zuzen ere, eguerdian izango da—. Era berean, IpuinARTEan izeneko liburuaren aurkezpena egingo dute ordu eta leku berean.

Baina bi horiek ez dira bihar-koan egitasmo horren harira egingo dituzten ekitaldi bakarrak izango: Santa Maria parroki elizan kontzertu berezia eskainiko dute gauean, eta une berean hainbat margolarik 8 x 2,70 metroko murala margotuko dute bertan. Hala, bertara hurbiltzen direnek zuzenean izango dute artistak lanean ikusteko aukera.

«Herritar, elkarte eta laguntzaile guztien elkarlana eskertzeko, eta egun osoan zehar ekitaldiz ekitaldi izango diren denbora tarteak arintze aldera, bi topaketa-otordu antolatuta ditugu», adierazi dute, bestalde, Irakzi elkarte arduradunek. Bertako lehendakari Rita Calderonen arabera, Oargi elkar-

EGITARUA ▶

Bihar egingo dute Irakzi elkarteak IpuinARTEan I erakusketaren inaugurazioa, eta izen bera duen liburuaren aurkezpena.

BIHAR

**12:00.** IpuinARTEan I erakusketaren eta liburuaren aurkezpen ofiziala prentsa eta gonbidatuentzat, Aranburu Jauregian.

**19:00.** IpuinARTEan I erakusketa ibiltariaren inaugurazio ofiziala eta ‘IpuinARTEan I’ liburuaren aurkezpena, Aranburu Jauregian.

**23:00.** Jum Jum taldea: Afrikako perkusio, txalaparta eta alboka kontzertua. Era berean, pintura zuzenean Gustavo Diaz, Juan Luis Goenaga, Papin Lucadamo, Hector Luna, Ricardo Madana Mateo eta Txitxi Orbegozorekin, Santa Maria plazan. 8 x 2,70 metroko murala margotuko dute.

tean bazkaria egingo dute 14:00ak inguruan, eta kultura ezberdinen arteko afaria, berri-z, 20:30ean Casinon.

Nazioarteko jakiak

Besteak beste, Dominikar Errepublikako oilasko pika, Ekua-dorreko ceviche eta oilasko enpanadak, Venezuelako urdaiazpiko ogia, Euskal Herriko Gaintzako gazta eta arroz-nea, Marokoko pastela eta pastak, Mexikoko tako frijituak guakamolearekin, Amerikako Estatu Batuetako gazta pasta, Kolonbiako haragi pastelak eta Saharako oilasko aji-a izango dituzte aukeran dastatzeko hala erakusketan nola liburuaren parte hartu dutenek.

**Alkizako ostaturia itxita egingo da**  
**Irailak 17tik 27ra**

TOLOSA ▶ EUSKARA

# Aitzol udal euskaltegiak ikasturte berria aurkeztu du

«Ikasleek euskara bizitzako alor guztietara zabaltzea» dute jomuga euskaltegiko arduradunek 2005-06 ikasturterako; maila guztietarako eskaintza zabala dago

NOELIA LATABURU

Udal euskaltegira goaz. Bazatuz gurekin? Hauxe da 2005-06 ikasturterako Aitzol udal euskaltegiak jendea animatzeko aukeraturiko leloa. Atzo egin zuten aurtengo planaren eta eskaintzaren berri emateko aurkezpen ekitaldia Iñaki Azaldegi Euskara teknikariak, Onintza Lasa Euskara eta Hezkuntza zinegotziak eta Aitzol euskaltegiko zuzendari Miren Atxagak. 24. ikasturtea dute honakoa eta erronka nagusia «ikasleei zerbitzu egokia ematea da, kalitatean, eskaintzan eta materialgintzan hobetuz; hau guztia ikasleek euskara bizitzako alor guztietan erabiltzea lortu ahal izateko».

Hau gauzatzeko ordutegi,



Ezker-eskuin: Iñaki Azaldegi, Onintza Lasa eta Miren Atxaga, atzo eginiko aurkezpenean. NOELIA LATABURU

modulu eta erritmoetan aukera zabala eskaintzen du euskaltegiak. Autoikaskuntza sistema ere badute aukeran, eskoletan

parte hartu ezin dutenentzat. Horrela, ikasle bakoitzak adosten ditu bere tutorearekin batera helburuak, ibilbideak eta

beste. Duela bi urte ekin zioten proiektu honi eta orain arteko balantzea «positiboa» dela adierazi dute. Bestalde, euskal-

tegiak aintzat hartzen ditu gizar-teko talde bakoitzaren ezaugarriak, irakasle, guraso, jatorri anitzeko taldeak eta enpresetako langileak, esaterako. Aurtengo ikasturtean Osakidetza langileei zuzendu nahi diete deialdia batik bat, modulu eta material bereziak eskainiz. Kontaktuan jarri nahi duten alor honetako interesatuek matrikula epe barruan egitearen garrantzia azpimarratu dute arduradunek.

Ikasturtean garatzen diren eskolez gain, kanpo ekintza osagarriari aipamen berezia egin diote Aitzolekoek, izan ere hauei esker «errazago egiten zaio ikasleari ikasgelatik era-bilera errealerako jautzia».

## «Etorbizuna euskaraz dator»

Azken urteetako Tolosako eskolarate datuak aztertu dituzte, halaber. Bertan D ereduaren hazkundera nabarmena da eta, beraz, «etorkizuneko belaunaldiak euskaraz» datozela ondorioztatu dute. Joera honi mugak ez jartzeko eta hauek euskaraz bizitzeko eskubidea izan dezaten, lanean ariko da euskaltegia. «alor guztiak euskalduntze bidean jarritz».

IRURA-ANOETA ▶ EUSKARA

# Helduak euskalduntzea eta alfabetatzea helburu duen kanpaina abian

Eremu guztietan euskaraz egitea lortu nahi dute; izen-ematea, hilaren 28a baino lehen

IÑIGO TERRADILLOS

Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea bultzatzeko duen kanpaina aurkeztu zuten atzo goizean Irurako eta Anoetako udalek eta bi herri horietako ikastolek Irurako udaletxean. Bertan izan ziren Idoia Olano

Irurako eta Anoetako Euskara teknikaria, Dani Maiza Anoetako ikastolako zuzendaria, Fidel Azpiroz Anoetako alkatea, Marimi Ugalde Irurako alkatea eta Josune Aiestaran Irurako ikastolako zuzendaria.

Euskararen erabilera sustatzeko hartutako konpromisoak



Ezker-eskuin: Idoia Olano Euskara teknikaria, Dani Maiza Anoetako ikastolako zuzendaria, Fidel Azpiroz Anoetako alkatea, Marimi Ugalde Irurako alkatea eta Josune Aiestaran Irurako ikastolako zuzendaria. I. T.

gogoratu zituzten. Alegia, UE-MAko kide egitea, Euskara Biziberritzeko Plana onartzea

edo Normalkuntza Planak abian jartzea; baina, hala ere, «bizitza osoa eremu guztietan euskaraz egiteko pauso txiki batzuk geratzen» direla azaldu zuten. Eta hor, euskaraz hitz egin bai baina idazten ez dakitenak, edo oraindik euskaraz ez dakiten herritarrak aipatu zituzten, etorkinen kasua adibide bezala emanez.

Hori dela-eta herritarrak animatu nahi dituzte euskaraz treba daitezen: euskaraz dakitenak idazteko eta irakurtzeko ohitura har dezaten, eta ez dakitenek ikas dezaten. Halaber, «trebakuntza hori herrian bertan egiteko aukera eman nahi diegu», adierazi zuten, eta he-

rrian taldea osatuz gero, eskolak bertan emango direla gehitu zuten. Gainera, aukera hori ongi ez datorkionarentzat eskualdeko bi euskaltegiara jo ahal izango dela eta autoikaskuntza metodoaz ere balia daitenkeela gogoratu zuten.

Euskalduntzean eta alfabetatzean ahalik eta jende gehiago parte har dezan diru laguntzak emango dituzte bi udalek. Bertan izena emateko Irurako udaletxera edo Anoetako udaletxera jo beharko dute interesatuek hilaren 28a baino lehen. Informazio gehiagorako euskara zerbitzuetara dei daiteke: 943 69 13 33 (Irura), 943 65 12 00 (Anoeta).

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Gure webgunean egun dagoen eztabaidetako bat da honakoa: Zer iruditzen zaizu herriko gazteek Leitzako Ateka Beltza etxea erabiltzen hasi izana? Sartu webgunean eta emaiguzu zure iritzia gai honen gainean.



PILOTA ▶

## Gaur hasiko da Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa

Aurrera Saiaz eta Zazpi Itturri klubeko pilotariak bertan lehiatuko dira

ERREDAKZIOA

Gaur emango zaio hasiera Gipuzkoako Kluben Arteko 2005-2006 Pilota Txapelketari, eta bertan ariko dira Aurrera Saiaz eta Zazpi Itturri klubak.

Horrela, lehenengo jardunaldian Aurrera-Saiaz klubak 19:30ean Bidanien jokatuko du. Lehenengo partida jubilen artekoa izango da eta Aurrera Saiaz-eko Xabier Telletxeak eta Koldo Galarragak Intxaurrendoko bikotearen aurka jokatuko dute.

Bigarren partida 3. mailako seniorren artekoa izango da, 2. multzokoa, hain zuzen. Partida horretan Aurrera Saiaz 2-ko Axier Telleria eta Ioseba Senperena pilotariak Urnietako bikotearen aurka jokatuko dute.

Zazpi Itturri klubari dagokionez, gaur 20:00etan jokatuko ditu partidak Ametzetan; lehenengo Zazpi Itturri eta Antiguako 1 klubaren artekoa izango da, bigarrena Zazpi Itturri 2 eta Murumendiren artekoa, hirugarrena Zazpi Itturri eta Aurrera Saiaz 2-ren artekoa, eta laugarren partidari Zazpi Itturri 1 eta Zazpi Itturri 2 lehiatuko dira.

Biharko partidei dagokionez, Aurrera Saiaz-eko pilotariak 11:00etan hasita jokatuko dituzte Tolosako Beotibar pilotalekuan. Lehenengo partida 3. mailako seniorren artekoa izango da, 1. multzokoa, eta Aurrera Saiaz 1-eko Unai Aspek eta Ion Orbegozok jokatuko dute Tartaloetxeko aurka. Bigarren partida 1. mailako seniorren artekoa izango da, eta Aurrera Saiaz-eko Mikel Bellasok eta Jabi Oteizak Añorga 2 ko pilotariaren aurka jokatuko dute.

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA ▶

# «Ingurumenaren aldeko» lehendabiziko ekitaldiak eskualdean

Atzo hasi ziren Mugikortasun Iraunkorraren Asteko lehen ekitaldiak Iruran eta Anoetan; gaur ere badira beste hainbat



Irurako ikastetxeko ikasleek neurketak egin zituzten goizetik. HITZA



Bizikletak prest utzi zituzten Anoetan igandeko birarako. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Atzo hasi ziren eskualdeko hainbat herritan Mugikortasun Iraunkorraren Astearen barruko sentsibilizazio ekitaldiak. Lehendarrak Irurako ikastetxeko LH3ko ikasleak izan ziren. Izan ere, goizean goiz neurketak burutu zituzten: zaratarari, aireari, trafikoari, ibilgai-

luek okupazioari eta bizikleten erabilerari, besteak beste. Ondoren, tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak banatu zituzten, autoaren erabilera murrizteko helburuz.

Anoetarrek hartu zuten, arratsaldean, lekukoa. *Ekarrizure txirinda eta prestatu igandeko martxarako!* lelopean, bizikleta txkeoa egin zuten

EGITARAUA ▶ GAUR

ASTEASU

Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, garraio publikoaren erabilera, bizikleten erabilera... LH3-4ko ikasleek, 09:00etan. Egunez tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak banatuko dira.

TOLOSA

Mugikortasun iraunkorrari buruzko mezuak dituzten banderolak jarri eta hiribusari buruzko informazioa duten txartelak banatuko dira: egutegia eta ibilaldia. 17:30ean Andre Maria plazan Apika ipuin kontalariaren saioa *Klik-Klak* obrarekin, Haur Liburutegiak antolatuta, eta txokolate banaketa. Euria eginez gero, Berdura plazan izango da.

VILLABONA

Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera..., Fleming eskolako LH6ko ikasleek, 10:00etan. Tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak banatuko dira.

ZIZURKIL

Tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak banatuko dira.

plazan, Oriako txirindulari eskolak antolatuta.

Gaur ere ekingo diete hilaren 22ko Autorik Gabeko Eguna-ren harira antolaturiko «kutsaduraren aurkako eta ingurumenaren aldeko» lehen ekitaldiei Zizurkilen, Villabonan, Tolosan eta Asteasun. Bihar, beste batzuk batuko dira.

IBARRA ▶

## Izaskun-en arteko bazkaria, etzi

Etzi egingo dute Izaskun izena dutenen arteko ohiko bazkaria, Izaskunen. 13:30ean meza izango dute ermitan, eta ondoren bazkaria Izaskun jatetxean. Egun-pasa honetan izena eman nahi dutenek 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu beharko dute, goizez.

IBARRA ▶

## 'Labourd 1609' filmean parte hartzeko aukera

*Eneko Aritza* film laburraren ondoren inkezioan oinarriturik egongo den *Labourd 1609* film luzea egiten dihardute Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteok. Horrek dakarren lana dela eta, gaur bilera bat egitea erabaki dute, lagundu nahi duen oro ager dadin. Izan ere, haien helbururik handiena da herri guztiak parte hartzea da, lokalizazioetan, jantzetan, estra modura... eta horregatik jotzen dute herri-tarregana, gogoratu ez direla profesionalak eta animatzen denak ez duela heldurrik izan behar agertzeko. Hitzordua gaur izango da, 20:00etan, Ibarako San Bartolome plazan.

GIZARTEA ▶

## Sukaldaritza lehiaketa jubilatuen artean

Tolosaldeko hainbat jubilatutako elkarte Urnietan izango dira gaur goizean, urtero antolatzen den sukaldaritza lehiaketa. Aurtengoan bakailoa pil-pil eran prestatu behar dute eta, Urnietako elkarteaz gain, eskualdeko herri haueko jubilatutako elkarteek parte hartuko dute: Amaro, Anoeta, Irura, Tolosa eta Villabona. Goizeko hamarretan hasiko dira guztiak sukaldako lehiaketa.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

**Furgoneta.** Volkswagen Multiban TDI, 102 zaldikoa, SS-AW, egoera onean. Deitu 626 71 39 04 telefono zenbakira. (14:00etatik aurrera).

ESKAINITZA

**Langilea.** Neska bat eskaintzen da arratsaldean lan egiteko. Interesatuak deitu telefono honetara lehenbailehen: 617 14 94 41.

LANA

**Neska.** Legorretako neska behar da

etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko. Deitu telefono honetara: 609 16 16 35.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da taberna batean 4 orduz lan egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 675 70 11 78.

**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 zenbakira.

**Emakumea.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko Iruran. Interesatuak

deitu telefono zenbaki honetara: 685 76 80 91.

**Zerbitzaria.** Neska bat behar da eguneko menuak zerbitzatzeko esperientzia duena. Astelehenetik ostiralera. Telefona 943 11 98 28 (18:00etatik aurrera deitu).

## TOLOSA ▶ VII. GARAGARDO AZOKA

Garagardo  
Azoka abian  
da Zerkausian

I. Garcia ▶ Tolosako VII. Garagardo Azoka abian da, Zerkausian. Igandera arte aukera izango da bertan hogeita zazpi garagardo mota eta ohiko menua dastatzeko. Argazkian, atzo arratsaldean, aurtengo azokako lehenengo garagardo pitxerrak zerbitzatzen. IMANOL GARCIA



## ALKIZA ▶ UDALA

## Herriak badu web orria

Herriko festetan egin zuten [www.alkiza.net](http://www.alkiza.net) webgunearen aurkezpena

IMANOL GARCIA

Herriko festetan aurkeztu dute Alkizako Udalaren web gune berria. Helbidea erraza da gogoratzeko: [www.alkiza.net](http://www.alkiza.net). «Gaur egun teknologia berriek duten garrantzia ikusita eta herritarrek Udalaren informazioa eskura izateko jarri dugu mar txan webgunea», esan dio HITZARI Jon Roteta alkateak. Europako Batasunak emandako diru laguntzaren bidez gauzatu dute egitasmoa.

Joxean Zubiaurre alkizarren enpresak, Webaliazak, garatu du webgunea. Bi hilabeteetan aritu dira proiektuan lanean. *Oilategitik* herri aldizkaria egiteko erabilitako informazioa —Zubiaurrek ere parte hartzen du egitasmo horretan— baliatu dute atal ezberdinak hornitzeko. Zubiaurrek berak egin zuen aurkezpena herritarren aurrean. «Espero baino jende gehiago azaldu zen», azaldu dio HITZARI. «Sartuta dagoen informazio kopuru handia aipatu zuten, eta egunerokotasuna mantenduko den kezka azaldu zuten. Horretarako arduradun bat jarri da



Alkizako Udalaren webgunearen atal bat. HITZA



Herriko festetan herritarrei egindako aurkezpenaren une bat. HITZA

atal bakoitzeko, eta haiek joango dira informazioa sartzeko».

Atal ugari ditu Interneteko plaza berriak. Alde batetik

Udalarekin zuzenean zerikusia duten gaiak daude, besteak beste: Udaleko antolakuntza, zerbitzuak, ordenantza fiskal-

ak, udal aurrekontuak, arau subsidiarioak, deialdiak eta oharra... Modu honetara, Udalarekin egin beharreko gestioei buruzko informazio zuzena jasotzeko aukera eman nahi dute, udaletxera joan gabe. Bestetik, udalerriri buruzko datuak daude: kokapena, historia, biztanleria, Agenda 21, baserriak eta etxeak, Alkizako eskola, albisteak... Herriko elkarteek, abesbatzak eta Erniope Pilota Elkarteak beren lekua dute. Turismoak ere bere tarte du, non mendi ibilbideei, herriko bi nekazturismoei eta hiru tabernei buruz informazioa ematen den.

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari buruzko informazioa aurki daiteke beste atal batean: gizarte zerbitzuak, kultura eta kirola, liburutegia... Jendeari asko gustatzen zaion atala argazkiarena da. Bertan ikusi daitezke urtean gertatutakoak irudietan, eta baita herriko argazki zaharrak ere. *Oilategitik* aldizkariak ere bere lekua du. Testuak euskaraz daude, eta asmoa dute gaztelarara itzultzeko informazio guztia sartuta dagoenean.

## ARESO ▶

Olazabal  
aresoarrak  
Lezoko txapela  
irabazi du

Atzeko koadroetan Aldatz lagun izanik, 22 eta 19 irabazi diete Apezetxea eta Izari

JAIONE ASTIBIA

Mikel Olazabal aresoar pilotari gazteak Lezoko Pilota Txapelketa irabazi zuen herenegun Aldatz altsasuarrarekin batera, Apezetxea-Iza bikoari, urdinen aldeko 22 eta 19ko tanteoa lortuz.

«Partidua gogorra izan zen eta luzea», adierazi zion HITZARI Olazabalek berak atzo, Naxerara (Espainia) bidean, hara finalerdia jokatzera zioala: «Aurrenean galtzen hasi ginen 3-1, baina 4nako berdinketaren ondoren, aurretik jarri eta horrela joan ginen 17ra arte, orduan besteak aurreratu zitzaizkigun tanto batez, baina berriz ere buelta eman eta 22ra aillatu ginen». Markagailuan ez zen tarte handirik izan, baina erabat bizpahiru tantoz aurretik joan ziren urdinak. Partiduko gakoetako bat eta alde eza rri zuena, gainera, Olazabalen beraren sarea izan zen, 6 tanto egin baitzituen, ustez favorito izendatzen zuten Apezetxea goizuetarrak baino 3 gehiago. Bestalde, Aldatzek egindako lana ere aipagarria izan zen, tanto batzuk galdu bazituen ere, aurkako aurrelariari pilotara sartzeko aukera asko ere ez zizkiolako utzi. Finaleko pilotaririk hoberenaren saria harentzat izan zen, lauen artean.

Txapelketa honetan, 22 urtez behikoen sailan jokatu du Olazabalek, hain justu atzo bete zituen 19 urte, eta aurtentzen irabazi duen Getxoko txapelari orain Etxandiren oroinenezko hau gehitu dio.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
[tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)

HITZA guztietan prezio beragatik

## LEITZA ▶

**Patata tortila lehiaketa dute egitekoa bihar Ateka Beltzan**

Parte-hartzearekin gustura, astebururoko egitarauarekin aurrera doaz gazteak

J. ASTIBIA

Patata tortila lehiaketa antolatatu dute gazteek bihar eguerdirako, Ateka Beltzan. Taldeek, «gehienez hiru partaidekoak», 12:00etarako bertaratu behar dute, «bakoitzak beharrezko dituen tresna eta osagaiak» eramanaz, eta prestaketari ekin. 14:00etan eginen dute dastaketa. Eta, ondoren, bazkaria: entsalada eta edaria, antolatuzaileek jarriko dituzte.

Orain arteko parte-hartzearekin «oso gustura» daukela zioten gazteek: «Ekintza guztietara, jende desberdina etorri da eta hori ona da, batez ere Ateka Beltza ikusi eta mamuak kentzeko», aurreko asteetako mus txapelketara eta masaje tailerrera joandakoak aitatzat. «Oraingoan ere», zioten, gonbidapena «herri guztiari» egin diete.

## TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun e.: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693990

**Garraioak.**

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostia autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

**Besterik.**

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## IBARRA ▶



Jende asko aritu zen lehiatzen atzo Bizi-Nahi Elkarteak mahai jokoen txapelketan. NEREA LIZARTZA

**Bandera altxatuz ekin diete festei Bizi-Nahi jubilatzen elkartekoek**

«Ilusio handiz pasatzen ditugu egun hauek», dio Aristondo lehendakariak

NEREA LIZARTZA

Urtero bezala, Bizi Nahi elkarteak ekintzaz beteriko jaiak antolatatu ditu datozten egunetarako. 1982an sortu zen elkarte hau eta, orduz geroztik, hutsik ere egin gabe, urtero antolatatu dituzte festak; aurten hogeita hirugarren aldiz jaso dute festen adierazlea den elkarteko bandera. «Ilusio handiz pasatzen ditugu egun hauek», adierazi zuen Juan Aristondok, elkarteko lehendakariordeak.

Atzo eguerdian eman zieten hasiera jaietako banderaren jasotzearekin. Ondoren, mus, tute, eskoba eta punttu txapelketak lehen faseak jokatu zituzten. Jende andana hurbildu zen elkartearen egoitzara; batzuk mahai jokoen parte hartzeko asmoz eta beste batzuk, berriz, ikusmin hutsez. Guztira, berrogei lagun inguru aritu ziren jokoan. Jaietako lehen eguna aukeratu zuten ere erregina eta ohorezko bi damak aukeratzeko; pozarren egin zuten hautaketa elkarteko kideen artean. Azkenik, egunari amaiera emateko, bertaratu ziren guztiak mokadutxo batzuk eta dantzaldia izan ziren.

Baina datozten egunetan ere ez da festarik faltako Bizi-Nahi elkartean. Gaur, esaterako, goi-

## EGITARAUA ▶

**GAUR**

**09:30.** Ibilaldia zaharrentzat.

**Ondoren.** Hamaiketakoak.

**17:00.** Bakailao lehiaketa elkartekoentzat.

**Ondoren.** Afaria.

**BIHAR, LARUNBATA**

**11:30.** Toka txapelketa.

Garaikurrak izango dira irabazleentzat.

**16:30.** Futbol partidua bi talde ezagunen artean.

**18:00.** Haur jaialdia. Opariak banatuko dituzte.

**ETZI, IGANDEA**

**09:00.** Diana.

**12:00.** Meza hildako bazkideen omenez.

**13:00.** Dantzariak.

**14:00.** Lagunarteko bazkaria.

**19:30.** Jaietako amaiera.

zean goiz, adinekoei zuzendutako ibilaldia antolatatu dute; Tolosa eta Ibarra inguruko bazterretan barrera, batz besta bi ordu irauten dituen ibilaldia egingo dute. Ondoren, parte-hartzaileek eta bertaraten direnrek hamaiketako egingo dute. Arratsaldean, berriz, bakailao lehiaketa egingo dute elkarteko kideek. Bakailaoa pi-



Elkarteko kide bat, kartetan. N. L.

perrekin eta tomatearekin prestatu beharko dute lehiakideek. Ordu berean, mahai jolakoetako irabazleei garaikurrak banatuko zaizkie. Ondoren, elkarteko hainbat kidek prestatutako afaria jateko aukera izango da.

Bihar arratsaldeko sei etatik aurrera haur jaialdia izango da. Txokolatada, aulki jokia, itsulapikoak haustea... izango dituzte, besteak beste. Hainbat opari banatuko dira partaideen artean; hala nola, globoak, baloiak...

Bestalde, festen antolatuzaileek jakinarazi dute igandean egingo den bazkarirako txartelak oraindik salgai daudela; 18 euroren truke bazkideentzat eta 24 euroren truke gainerakoentzat. «Jada jende askok eman dute izena», esan dute elkarteko kideek. Beraz, festa behintzat zihurtatuta dago.

## ARESO ▶

**Ehiza postuen enkantea eginen dute bihar iluntzean**

Usotarako eta birigarrotarako dira 27 ehiza-postuak; udaletxeko aretoan da



laz aretoa jendez bete zen. J. A.

J. ASTIBIA

Bihar, larunbata, eta arratsaldean, 19:00etatik aurrera zehazki, herriko etxeko batzar aretoan, «Aresoko lurretan dauden 27 ehiza-posturen enkantea» eginen dute. Hala ere eman dute jakitera Aresoko Udaletik bertatik.

Enkantera aterako dituzten postuak «usotarako eta birigarrotarakoak» dira, zehaztu dutenez. Eta enkantea egiteko modua «ahots-gorazkoak» izanen omen da, «eskaintza egiten den bakoitzean, tantoko, 10 euroko balioa izango da». Eskaintza onena egiten duenarentzat geldituko da postua, baina behin behingoz.

Izan ere, «sextetako» delako epea igaro beharko omen da erabateko esleipena lortzeko, hots, larunbat honetako enkanteko lehen saioko eskaintzak hobetzeko, sei egun daude: interesatuek prezioaren zortzirena dirutan ekarri behar dute, udaletxera, hila-ren 23a, ostirala, 19:00ak baino lehen.

Sexteetatuko postuekin 2. enkante saioa eginen dute, bihar zortzi. Orduan eginen dute behin betiko esleipena.

**Tolosako jatetxe  
baterako sukaldaria  
eta zerbitzaria  
behar da**

**943 65 10 59**

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 16a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alabizola, Adana, Abitur, Alege, Alca, Alzo, Ametsela, Anosta, Araso, Arreano, Balamán, Belduntza, Berastegi, Berrozi, Etxauri, Herrialde, Iturriz, Irujo, Labroa, Lizarra, Oñena, Oñena, Tolosa, Villabona, Zizaki, besterik: Leizaldea, Euzkara Batordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** 21:30ean, afaria agintariekin, La Jaran, eta Flor de Jara taldearen emanaldia. Extremadurako Kultur Astearen baitan.  
**Ibarra.** Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak *Labourd 1609* ari da filmatzen. Gaur bilera egingo dute, lagundu nahi duen oro ager dadin, 20:00etan, plazan.  
**Ibarra.** Bizi-Nahi jubilatuen elkarteak jaia. 09:30ean, ibilaldia; ondoren, hamaiketako; 17:00etan, bakailoa piper eta tomateekin lehiaketa; ondoren, mahai jokoen finalak; iluntzean, afaria bazkideentzat.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Mertxe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte egongo dira ikusgai, Jubilatuen tabernan.  
**Tolosa.** Garbiñe Biurrun eta Maria Jesus Mendizabal bazkideek egindako eskulan eta pinturen erakusketa, La Jara zentroan. Extremadurako Kultur Astearen baitan.  
**Tolosa.** Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte ikusgai, Lanbroa tabernan.  
**Tolosa.** Rosa Maria Ruizen margolanak ikus daitezke egunotan Sorron enmarkazio dendan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre (107,5 FM)**  
 11:30. 14:00ak arte, *Tolosaldeko Ahotsa* magazina. Eguraldia Joxe Landarekin, albisteak, eskualdeko oharrak, Hitzaren alea...  
 12:00. Marian Lazkano Zizurkilgo alkateari elkarrizketa.  
 12:20. Eskualdeko jai eta azoken inguruko berriak eta elkarrizketak: Tolosako VII. Garagardo Azoka, Ibarroa Azoka, Asteasuko Azoka...  
 12:40. Tolosaldeko Bilgune Feminista.  
 13:05. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.  
 13:10. Lehiaketa eta disko eskainiak.  
 19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa*-ren errepikapena.  
 22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Paisaia ikusgarriak

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Picos de Europa-ko Ruta del Cares izenekoan eta Islandiako Gullfoss ur-jauzian jasotako argazkiak dira hauexek**

**CARES ▶**

**Amaia Santamaria Galindo (Tolosa).**

Amaia Santamariak Picos de Europa-n (Kantabria, Espainia) igaro ditu bere opor egunak. Irudi hauxe bidali digu: «Argazkia Picos de Europa-ko Ruta del Cares izenekoan aterata dago. Ibilbide hau oso ikusgarria da, paisaia eder bezain arrisurtsua delako. 24 kilometro ibili daitezke ibilbide honetan, eta ia bide guztia 2 metroko zabalera iristen ez den pasadizo batetik egiten da. Irudian ikusten da jendea nondik ari den ibiltzen eta zelako altuera dagoen».



**GULLFOSS ▶**

**Izaskun Maiza (Ibarra).**

Islandian uztailean hartutako argazkiak bidali ditu lehiaketara Izaskun Maiza ibartarrak. Halaxe deskribatu digu irudian jasotakoa: «Gullfoss ur-jauzia, irudiak esaten duen bezala, ikusgarria da. Bertan ikusten den ura glaziarrekoa da, eta harrigarria zer indarrarekin datorren...».

**AGURRAK ▶**

**HITZA, zorion agurren tartea**  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
**Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaltzeko bulegoa - LEITZA**  
**Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!**